El Presidente de la entidad manifiesta que en la contabilidad correspondiente a las presentes Cuentas Anuales no existe ninguna partida de naturaleza medioambiental que deba ser incluida en la memoria de acuerdo a las indicaciones de la tercera parte del Plan General de Contabilidad (Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre) y a la resolución de 6 de abril de 2010 sobre registro, valoración e información de los derechos de emisión de gases de efecto invernadero.



Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko lehendakariak, 2022ko martxoaren 30ean, 2021eko Abenduaren 31n amaitutako Urteko Kontu (egoera balantze, galera eta irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera, dirtuzaintza-fluxuen egoera, eta memoria) eta kudeaketa-txostena, hauek aurkezten dituzte, 34 orrialdez osatuta daudenak, 1etik 34ra bitartekoak.

El Presidente de Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura con fecha 30 de marzo de 2022, formula las presentes Cuentas Anuales (balance de situación, cuenta de pérdidas y ganancias, estado de cambios en el patrimonio neto, estado de flujos de efectivo y memoria) y el informe de gestión de la Entidad correspondientes al ejercicio anual terminado a 31 de diciembre de 2021, que comprenden 34 páginas numeradas de la 1 a la 34.

Donostian, 2022ko martxoaren 30ean



Eneko Goia Laso

Lehendakaria

San Sebastián, a 30 de marzo de 2022

Eneko Goia Laso

Presidente



2021 EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA

INFORME DE GESTION DEL EJERCICIO 2021



2021 EKITALDIARI DAGOKION KUDEAKETA
TXOSTENA

I. Erakundearen egoera eta negozioen garapena

I.1. Negozioen garapena

2021a aurreko urtea amaitu bezala hasi zen, kultur eremuan murrizpenak zituela –% 50eko edukiera, mugikortasun gutxiago– eta zenbait jai ospatu gabe, hala nola erregeen desfilea, danborradak edo inauteriak. Eta espero zenaren kontra, pandemiaren seigarren olatuarekin amaitu zen, aretoen edukiera % 60ra murriztuta.

Tartean, urte zaila, ustekabeak etengabe (jarduerak bertan behera geratzea, ixte perimetralak, programazio-aldaketak, sarrerak itzultzea, eta abar), eta, hala ere, osasunbabeserako neurriak, *Kultura: osasunez gozatu* goiburupean, guztiz eraginkorrak agertu zirelarik. Eta, batez ere, jendeak harrera benetan beroa egin zion Donostia Kulturak urtean egin duen kultur eskaintza zabalari.

2021. urtean, urrats garrantzitsuak egin ziren Donostia Kulturak nazioartean duen kokapena sendotzeko bidean. Inflexio-puntua markatu zuen mugarrira, ezbaierik gabe, diplomazia publikoari eta diplomazia kulturalari buruz antolatutako nazioarteko ikastaroa izan zen, uztailan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Ikastaroen barruan. Ikastaroak baitezpadako arrakasta izan zuen, mundu osoko adituak erakarri baitzituen, tartean mundu mailan ezagunez agurak zirenak, eta hogeita lau herrialdeetatik etorritako ehun lagunetik gora bildu zituen, oso soslai eta jatorri desberdinetakoak denak ere. Komunikabide nagusien interesa erakarri zuen ikastaroak, eta eragin nabarmena izan zuen sare sozialetan.

Kultur etxeen sarea herritarrentzako topagune da eta erreferentzia bat auzoko eguneroko agendetan. Kultur etxeek udal zerbitzuen eskaintza zabala kudeatzen dute, eta kultur arlo guztietako jarduerak programatzeaz eta festetan parte hartzeaz gainera, lehenak dira tokian tokiko sortzaileak babesten eta ekimen publikoa eta pribatua elkartzen dituzten proposamenak bultzatzen.

Kultur etxeetan 2021. urtean ere Covid-19a izan genuen gainean, eta ahalegin handia egin zen jarduera gehienak berreskuratzeko, erabiltzaileen, kultur eragileen eta lagunen osasuna babestearekin batera.

Ez zen eginkizun erraza izan programazioak oso baldintza aldakorretan zertu baitziren, eta, besteak beste, etengabe berrasmatu behar izan ziren landinamikak, unean uneko araudietara egokitzeko: atzerapenak, egutegi eta orduetegi berriak, edukiera murriztuak, higie-neurriak...

INFORME DE GESTIÓN
CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2021

I. Situación de la institución y desarrollo del negocio

I.1. Desarrollo del negocio

El año empezó tal y como acabó el anterior, con restricciones en lo cultural y festivo –al 50% en los aforos y con movilidad reducida– y con las primeras celebraciones festivas como la cabalgata de los reyes magos, las tamborradas o carnavales celebrándose bien en pequeño formato, bien de forma virtual. Y, contra todo pronóstico, finalizó con una sexta ola de la pandemia y nuevas restricciones de los aforos al 60%.

En medio un año difícil, con permanentes contratiempos (cancelaciones, cierres perimetrales, cambios de programación, devoluciones de entradas, etc.), en el que sin embargo, las medidas de protección sanitaria adoptadas bajo el lema *Cultura: Disfrútala con salud* se mostraban totalmente eficaces. Y, sobre todo el público daba una acogida realmente cálida a la extensa oferta cultural que Donostia Kultura ha mantenido este año.

Durante el año 2021 se dieron pasos muy relevantes en el camino de la consolidación de la internacionalización de Donostia Kultura. El hito, sin duda, que más marcó el punto de inflexión fue el curso internacional que sobre diplomacia pública y diplomacia cultural se desarrolló en julio en el marco de los Cursos Internacionales de la Universidad del País Vasco. El curso celebrado con un indudable éxito, atrajo a expertos y expertas de todo el mundo, algunas máximas referencias mundiales y concitó la participación de más de cien personas, de muy diferentes perfiles y procedencias, representando a más de veinticuatro países. El curso acaparó el interés mediático de los medios de comunicación más relevantes y el impacto en las redes sociales fue muy notable.

La red de casas de cultura es lugar de encuentro de la ciudadanía y referencia en las agendas diarias de los barrios. Los centros gestionan una amplia oferta de servicios municipales y, además de programar actividades de todas las disciplinas culturales y participar en festejos, son los primeros en apoyar a creadoras y creadores locales e impulsar propuestas que aúnan la iniciativa pública y la privada.

El año 2021 continuó condicionada por la Covid-19 y se hizo un gran esfuerzo por recuperar la mayor parte de actividades protegiendo al mismo tiempo la salud de personas usuarias, agentes culturales y trabajadoras/es.

No fue una tarea fácil, pues las programaciones se llevaron a cabo en condiciones cambiantes y, entre otras cosas, hubo que reinventar continuamente las dinámicas de trabajo para adecuarlas a las normativas de cada momento: aplazamientos, nuevos calendarios y horarios, aforos reducidos, medidas higiénicas ...



Kultur etxeek 661.836 bisita izan zituzten eta 5.058 jarduera baino gehiago programatu ziren. guztira 187.303 lagunek hartu zuten parte.

Kultur etheen programazioaren barruan, urte urte onarpen handiena duen programetako bat da prestakuntza eskaintzarena. 2021-2022 aldian, Donostia Kulturak antolatutako 807 ikastaro eskaini ziren, askotarikoak iraupenaren, gaiaren eta jartzaileen aldetik. Garrantzi berezia eman zitzaizkien gazteentzako ikastaroei eta autoreikastaroei. Aipagarriak dira Donostia Kulturak antolatutako ikastaroetan parte hartzearen datuak. 7.000 matrikula baino gehiagorekin, donostiarrek agerian utzi zuten kultura aurrez aurrekoen bidez eta parte hartuz berreskuratzeke zuten gogoia. Nabarmenezkoa, gainera, gero eta jende gehiagok egiten dituela online izena emateko izapideak, eta 2021ean matrikulazioaren %75 izan zirela.

2021. urteko lehen hiruhilekoan, ikastaroen programazioa bi edo hiru hilabetekoa izan zen, 2020an pandemiara egokitzeko diseinaturiko planaren ildotik. 2021eko urritik aurrera, ohiko formatuetara itzuli ginen, hots, urte osorako edo lau hilabeteko ikastaroak eskaini genituen. Hala ere, eskaintza unean uneko errealitateari egokitzen jarraitu genuen, COVID-19a zela eta.

Programazio zabala, bizia eta askotarikoa, hiriak gaur egun dituen beharrei erantzuteaz gainera adi dagoena eta, urte urte, arlo berriak eta eskaria duten proposamenak jasotzen dituena.

Poltsiko Antzerkiaren 30. edizioaren balantzea oso ona izan zen antolakuntzari eta herritarren erantzunari dagokienez. 2021ean, 4.000 ikus-entzule inguru hurbildu ziren antzerkiak, umoreaz, txotxongiloek, musikaz eta kabaretaz gozatzen, irailaren 24a eta urriaren 10a artean.

Jaialdia udazkenean itzuli zen, otsailean atzeratu eta gero, eta berritasun aipagarriena izan zen ia osorik karpapean egin zela, unean-unean indarrean zeuden segurtasun- eta osasun-neurriak bermatzeko. Murrizpenek galarazi egin zuten programazioa ohi bezala eskaintzea, tabernetan eta beste gune ezagun batzuetan, eta, ondorioz, antolatzaileak ikus-entzuleentzako egokiak ziren agertokiak sortzea erabaki zuten, hiru plazatan eta asteburuetan.

Guztira, 17 konpainiak hartu zuten parte, eta 32 funtzio eskaini zituzten, 8 agertokitan. Beste urte batzuetan bezala, arreta berezia eskaini zitzaion euskal sorkuntzari, eta 16 funtzio euskaraz izan ziren. Konpainiek esker ona erakutsi zieten bai Donostia Kulturari, sektorearen eta jaialdiaren alde egiteagatik halako egoeran, bai ikus-entzuleei, beldurra alde batera utzita eta ilusioz etortzeagatik beren ikuskizunetara. Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen, ez bakarrik ugari etorri zirelako karpara eta ikuskizunetara; baita segurtasun-neurriak bete zituztelako ere.

Las casas de cultura recibieron 661.836 visitas y se programaron más de 5.058 actividades, en las que participaron 187.303 personas.

Dentro de la programación habitual, la oferta de formación de las casas de cultura es uno de los programas que mayor aceptación tiene año tras año. En el periodo 2021/2022 se ofertaron 807 cursos, organizados por Donostia Kultura, con diferentes formatos en cuanto a duración, temática y públicos y en los que se dio una especial relevancia a los cursos dirigidos a la población joven y a los cursos de autor. Con más de 7.000 matrículas, las y los donostiarres demostraban sus ganas por recuperar la cultura de manera presencial y participativa. Destacar, además, que las gestiones realizadas on-line para matricularse son cada vez más numerosas y que esta ocasión se acercaron al 75% del total de la matriculación.

Durante el 1er. trimestre del año 2021, la programación de los cursos fue bimensual o trimestral continuando con el planteamiento diseñado en 2020 para adaptarse a la pandemia. A partir de octubre de 2021, recuperamos los formatos tradicionales, ofertando cursos de duración anual y cuatrimestral. No obstante, continuamos con la adecuación de la oferta a la realidad que vivimos en cada momento en relación al COVID-19.

En definitiva, se trata de una programación amplia, viva y variada, que además de responder a las necesidades actuales de la ciudad, mantiene una escucha activa e incorpora, año tras año, aquellas nuevas disciplinas y propuestas demandadas.

El balance de la 30ª edición del Festival de Teatro de Bolsillo por parte de las casas de cultura fue muy positivo en cuanto a organización y respuesta ciudadana. En este año marcado por el Covid19 se acercaron alrededor de 4.000 espectadores a disfrutar del teatro, el humor, los títeres, la música y el cabaret, del 24 de septiembre al 10 de octubre.

El festival regresó en otoño tras su aplazamiento en febrero y como gran novedad, se realizó casi en su totalidad en carpas situadas en el exterior para garantizar las normas de seguridad y sanitarias vigentes en cada momento. Las limitaciones impidieron la programación habitual en bares y otros espacios ya habituales, por lo que la organización optó por crear escenarios adecuados para el público en 3 plazas y fines de semana.

En total 17 compañías participaron ofreciendo un total de 32 funciones repartidas en 8 escenarios distintos. Como en otros años, se le prestó atención especial a la creación vasca y 16 funciones fueron en euskera. Las compañías mostraron su agradecimiento tanto a Donostia Kultura, por apostar por el sector y el festival en la coyuntura actual, como al público, por volver a asistir sin miedo y con ilusión a sus espectáculos. La respuesta de los espectadores fue inmejorable, no solamente acudiendo en gran número a carpas y espectáculos, sino también cumpliendo las normas de seguridad.

2020ko edizioa azken orduan bertan behera geratu eta gero, Literaktum indartuta itzuli zen Donostiako kultur agendara. Berritasun aipagarriena Literaktum Topaketak izan ziren. Ekinbide horri esker, literatur panoramako autore nabarmenenek Donostia bisitatu ahal izango dute urtean zehar, jendearekin partekatzeke beren ibilbideak eta proiektuak.

Azaroaren 8tik 21era egin zen, hiriko zenbait kokagunetan, eta berriz ere jende ugari etorri zen antolatutako ekitaldietara. Guztira 3.500 herritarrek hartu zuten parte, era batera edo bestera, programazioan.

Literaktum Txikia programa ere, literaturzale gazteenei zuzendua, arrakastatsu gertatu zen. Kontukontariak, antzerkia, Haurren Egun Unibertsalaren jaia, lantegiak eta Marraztu zure animalia fantastikoa ilustrazio-lehiaketa: horiek guztiek eta beste batzuek eratu zuten programa. Aipagarria, halaber, lehiaketa horretan parte hartu zutenen kopurua, 200 ilustraziotik gora bildu baitziren.

Donostia Kultura Irratiak bere izaerari eusten dio, kultur eduki handia izanez eta audio euskarrien inguruko prestakuntzaren aldeko apustua eginez. 2021ean, gainera, indartu egin zuen hori, Ispilu Beltza programak, Oier Aranzabal eta Cristina Tapia aurkezle, kultura eta gaurkotasuna ditu ardatz nagusi. Sendotuz joan da, eta gure irratia kultur leihotzat eta gure hiriaren ezaugarritzat daukaten herritarrak informatuz.

Aurreko urtearen arrastoan, Larrotxene Bideok protagonismoa erakutsi zuen berriz ere bai Donostian eta bai Donostiatik kanpo, zinemunduari eta ikus-entzunezkoei dagokienez. Zenbait mugari eta arrakasta izan zituen proiektu honek. Materialen lagapena emendatu izana nabarmenduko dugu (54 lagapen 2021ean), hala zerbitzu honetatik dinamizatutako ikastaroetan sortutako produkzioei nola kanpoko ikusentzunezko beste lan batzuei, zeinak, berez, Larrotxene Bideoren koprodukzioak izan baitziren.

Azpimarratzekoa da, orobat, Donostia Apainen bigarren edizioak izandako harrera ona, oraingoan Altzako auzoan, zeinean zenbait sortzailek etxeen aurrealde eta hormetan zertu baitzuten beren artea, bai eta oso emaitza erakargarriak lortu ere auzotarren onerako.

Donostiako liburutegi-sareari dagokionez onera bidean jarri da bigarren urte honetan, non liburutegiek arauak eta osasun-neurriak betez jardun baitute COVID-19ari aurre egiteko. Urtearen amaieran, zerbitzu guztiak genituen martxan.

Onerako bidea erakusten dute datuek, oso onak izan baitira. 2021ean 399.983 mailegu egin genituen, eta horrek esan nahi du liburutegiak % 85ean erabili zirela, hots, 2019an baino % 14,20 gutxiago besterik ez. 2020arekin alderatuta, % 35,01 gehiago.

Tras la suspensión a última hora de la edición de 2020, Literaktum regresó reforzado a la agenda cultural de la ciudad. Como gran novedad, se dio inicio a Literaktum Topaketak, iniciativa que posibilitará que las autoras y autores más destacados de la actualidad literaria visiten Donostia a lo largo del año para compartir con el público su trayectoria y sus proyectos.

Se celebró del 8 al 21 de noviembre en diferentes espacios de la ciudad y un año más, numeroso público se acercó a los actos organizados. En total, fueron más de 3.500 los ciudadanos que, de una u otra manera, participaron de la programación.

El programa Literaktum Txikia, dirigido a los aficionados a la literatura más jóvenes, también resultó exitoso. Cuentacuentos, teatro, la fiesta del Día universal de la infancia, talleres y el concurso de ilustración Dibuja tu animal fantástico dieron forma al programa entre otras actividades. Reseñable, la participación en este concurso con más de 200 ilustraciones entregadas.

En 2021 Donostia Kultura Irratia mantuvo su identidad reforzando su programación y sus servicios para todo aquel que es amante de la cultura y en especial, de nuestra radio. El programa Ispilu Beltza, presentado por Oier Aranzabal y Cristina Tapia y que se caracteriza por la cultura y su actualidad como los ejes principales, continuó afianzándose e informando a la ciudadanía que utiliza nuestra radio como una ventana cultural y representativa de nuestra ciudad.

Siguiendo la estela del pasado año, Larrotxene Bideo volvió a mostrar su protagonismo en la escena de la ciudad, y fuera de ella, en lo que al mundo de cine y audiovisual se refiere. Varios fueron los hitos y éxitos que este proyecto fue abarcando. Destacamos el incremento en la cesión de materiales (54 en este año) tanto a las producciones surgidas de los cursos dinamizados desde este servicio como a otros trabajos

Cabe resaltar la buena acogida de la segunda edición de Donostia Apain, esta vez centrada en el barrio de Altxa y en el que creadores han estampado su arte en fachadas y muros con resultados muy atractivos en favor del vecindario.

La red de bibliotecas donostiaras ha iniciado la senda de la recuperación en este segundo año en el que las bibliotecas han funcionado según las normas y las medidas sanitarias para frenar la COVID. Finalizamos el año con todos los servicios en funcionamiento.

La senda de la recuperación se traduce en cifras muy positivas. Se realizaron 399.983 préstamos que suponen un 85% de utilización de las bibliotecas, sólo un 14,20% menos que en el año 2019. Con respecto al 2020 se ha incrementado un 35,01%.



Liburutegiak ez dira mailegurako bakarrik, eztabaidarako, ideientzako eta ezagutzarako gune ere badira. Bai eta aisialdirako eta gizarte-guneak ere, eta hori guztia beste zerbitzuen bidez baino ez da lortzen: kontsulta, Internet eta hemeroteca. Edukierak gutxituta ere, aurreko urteko bisitari kopurua baino % 29,49 gehiago izan ziren 2021ean. Bestetik, 2019. urtearen aldean, hots, pandemia aurreko urtearen aldean, % 36,50 bisitari gutxiago izan genituen. Alegia, 531.723 bisita hartu genituen 2021ean.

Irakurketa bultzatzeko gune diren aldetik, literatur solasaldiak nabarmenduko ditugu, Literaktumsaioak, Zu irakurle, gu kontalari eta Liburu baby kluba jarduerak, Irakurketa erraza-Lectura fácil-eko saioak, liburu-aurkezpenak. Guztira, 992 jarduera, non 15.087 lagun bildu baitziren.

2021. urtean, azpimarratzekoa da ere bai Liburutegi Nagusiko instalazioak hobetu izana, DonostiaTEKA dokumentu gehiago digitalizatu izana eta Dosdoce enpresak Liburutegi Nagusia eraberritzeko egindako azterketa.

Jardueren programazioaren ezaugarri nagusia, pandemiaren bigarren urtean, atzera ere aurrez aurreko formatura itzuli izana da. Hala ere, izan da literatur solasaldiak online formatuan jarraitzeko aukera; hau da, bietarikoak izan dira. Erabiltzaileek, oro har, nahiago dute aurrez aurrekoa.

Liburu Baby Kluba jarduera, hiru urte arteko haurrentzat, online egin zen iraila arte. 55 bideo grabatu ziren, 42 saio zoom-en, eta 3.162 aldiz ikusi ziren; batez beste, 90 minutu bideoko.

Liburuaren eguna, apirilaren 23an, ospakizun bitarikoa izan zen. Bi podcast enkargatu ziren. Bat, Martin Ugaldere obrari buruzkoa, Inazio Mujika, Garazi Kamio eta Koldo Izagirrerekin; bestea, Paseando con Quirke por San Sebastián izenburukoa, John Banvilleren obran oinarritua eta Amaia García eta Slawka Grabowskaren eskutik.

Poesialdia martxoan egin ohi da, eta 2021ean 22tik 26ra izan zen, Poesiaren Egunaren inguruan, zeina martxoaren 21a baita. Poesia eta Pentsamendua errezitala ekainean egin ohi da, eta tradizio luzea du. Han izan ziren Maialen Berasategi, Aurora Luque, Peru Magdalena eta Shiara Nuño. Bai eta Jon Makuso ere, biolin-jotzaile. Azkenik, Poesia Orduak izan genituen Victoria Eugeniaren, Leire Bilbao, Maite Larburu eta Nahia Zubeldiarekin. Tradizio handiko ekitaldia da, Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolatua.

Festak programari dagokionez, berriz, zuzen zuzenean jasan zituen pandemia zela-eta egin ziren murrizpenak: bertan behera geratu ziren Erregeen Desfilea, Danborrada, Inauteriak eta Aste Nagusia.

Las bibliotecas no son solo para el préstamo, son centros de debates, de ideas y de conocimiento. Además, son centros de ocio, centros sociales, y todo ello se logra a través del resto de servicios: consulta, internet y hemeroteca. A pesar de la reducción de aforos, se superaron en un 29,49% las cifras de visitantes del año pasado. Si se compara con el año 2019, año anterior a la pandemia, tuvimos un 36,50% menos de visitantes. En el 2021 recibimos 531.723 visitas

Como centros impulsores de la lectura, destacamos las tertulias literarias, las sesiones de Literaktum, las actividades Zu irakurle, gu kontalari, Liburu baby kluba, las sesiones de Irakurketa erraza-Lectura fácil, las presentaciones de libros, en total 992 actividades con 15087 asistentes.

En el 2021 destacamos también la mejora de instalaciones de la Biblioteca Central, el aumento de documentos digitalizados en DonostiaTEKA, y el estudio encargado a la empresa Dosdoce para la renovación de la Biblioteca Central.

La programación de actividades durante este segundo año de pandemia se caracterizó por la vuelta al formato presencial. Las tertulias literarias mantuvieron la posibilidad del formato on-line, es decir, fueron híbridas. Los usuarios en general prefieren el encuentro presencial.

La actividad Liburu Baby kluba para niños de 0-3 años se hizo hasta el mes de septiembre de forma on-line. Se han grabado 55 vídeos y 42 sesiones en zoom con un total de visualizaciones 3.162 y con una media de visualización de 90' por vídeo.

El día del libro, 23 de abril, estuvo marcado por ser una celebración híbrida. Se encargaron dos podcasts. Uno de ellos sobre la obra de Martin Ugaldere con Inazio Mujika, Garazi Kamio y Koldo Izagirre y el segundo Paseando con Quirke por San Sebastián, basado en la obra de John Banville y realizado por Amaia García y Slawka Grabowska.

Poesialdia se celebró del 22 al 26 de marzo, en torno al Día de la Poesía, que es el 21 de marzo. El recital de Poesía y Pensamiento tiene lugar en el mes de junio y cuenta con una larga tradición. Contó con Maialen Berasategi, Aurora Luque, Peru Magdalena y Shiara Nuño. Y con Jon Makuso al violín. Por último, se llevó a cabo la actividad Poesia Orduak en el Victoria Eugenia con Leire Bilbao, Maite Larburu y Nahia Zubeldia. Cita de gran tradición organizada en colaboración con Euskal Idazleen Elkarte.

En cuanto al programa de Fiestas, éste se vio duramente afectado por las restricciones debidas a la pandemia con la cancelación de la Cabalgata de los Reyes Magos, la Tamborrada, Carnavales y Semana Grande.



Sortaldeko Errege Magoak ezin izan ziren ohi bezala etorri gure hirira, baina, hala eta guztiz ere, moldatu ziren haur donostiarrei agur esatera etortzeko, aurreko urteetan egin izan duten bezala.

Ez dugu uste oker gabiltzanik esatean ezen, donostiarrentzat, Danborradarik gabeko urtea, noiz eta urtarilaren 20an ez baita entzuten gure kale eta plazetan danborren eta barrilen tarrapatarik, urte arraroa dela. Urte bitxia. Gure hiriaren egun handia ezin izan zen ospatu ezaguna dugun moduan, ezin izan ziren egin danborrada jendetsuak, eta ospakizun txikiagoekin askietsi behar izan genuen, eta teknologiaz baliatuta beste behin ere, hala bateratu ahal izan baitziren batzuk eta besteak.

Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionala osatzen duten 19 tribuek ere ez zuten desfilerik egin, ez eta hiriko auzoetan ibili ohi diren beste konpartsa guztiek ere.

Inude eta Artzainen konpartsak ere ezin izan ziren atera pandemia zela-eta.

Inauterietan egiten diren konpartsen desfileak ere ez ziren egin, eta Inauterietako ekitaldiak hutsaren hurrengo izateraino gutxitu ziren; atzera begirakoa antolatu zen azken urteotan Donostiako Inauterien irudi izandako karteekin, eta horri gehitu zitzaizkion azken urteotako Momo jainko eta jainkosek erabilitako jantziak, bai eta konpartsek berek Inauterien zenbait ediziotan atrezzo gisa erabilitako objektuak ere.

Bigarren urtez segidan, Aste Nagusia ez genuen ohi bezala ospatu. Hala eta guztiz ere, pandemiak zertxobait hobera egin zuenean, eta txertoa populazioaren zati handi batengana iritsi eta gero, bigarren aldiz segidan egin ahal izan zen Abuztua Donostian izeneko jarduera. Abuztuan 183 jarduera egin ziren guztira Donostian, formatu txikikoak, batez ere asteburuetan, ostegunetik igandera bitarte; jende-sail zabalei zuzendutako jarduerak, bi ezaugarriok zituztenak denak ere: aire librean izatea gehienak, eta segurtasun-neurriak eta edukiera-neurriak zorrotz gordeta egitea.

Oro har, programaturiko jardueri oso erantzun ona eman zien jendeak, nahiz eta batzuk aurrez pentsatutakotik oso urrun geratu. Kontzertuek, aire libreko antzerki-ikuskizunek eta haurrentzako jarduerak oso erantzun ona jaso zuten jendearengandik. Donostiako auzoetan programatu genuen zineak, aldiz, ez zuen bildu espero eta nahi adinako jendetzarik

La llegada de Sus Majestades los Reyes Magos de Oriente a nuestra ciudad no pudo realizarse de la manera habitual, pero a pesar de ello buscaron la forma de acudir a saludar a las niñas y niños donostiaras como lo han venido haciendo todos los años.

Creemos no equivocarnos si decimos que para las y los donostiaras un año sin Tamborrada, sin escuchar el día 20 de enero por nuestras calles y plazas los redobles de tambores y barriles, es un año extraño. Un año raro. El día grande de nuestra ciudad no pudo ser tal y como lo conocemos, no pudo haber tamborradas multitudinarias y nos tuvimos que conformar con celebraciones más íntimas y recurriendo una vez más a la tecnología que hizo de nexo de unión en las celebraciones.

Tampoco desfilaron por las calles de la ciudad las 19 tribus integrantes de la Comparsa Tradicional de Caldereros/as de la Hungría, como tampoco lo hicieron el resto de comparsas que habitualmente lo hacen en los diferentes barrios de la ciudad.

Las diferentes comparsas de Inude eta Artzainak no pudieron salir debido a la pandemia.

Los tradicionales desfiles de comparsas que tienen lugar durante el Carnaval tampoco tuvieron lugar y la actividad carnavalera se vio reducida a la mínima expresión; se organizó una retrospectiva con los carteles que habían sido imagen del Carnaval donostiarra durante los últimos años y que se vio complementada con los trajes de los diferentes dioses y diosas Momo que habían desempeñado este papel los últimos años así como con objetos que las propias comparsas utilizaron como atrezzo en las distintas ediciones del Carnaval.

Por segundo año consecutivo, la Semana Grande no la celebramos tal y como la conocemos. No obstante, una leve mejoría en las condiciones de la pandemia y la extensión de la vacuna a una amplia franja de la población, posibilitaron la celebración por segundo año consecutivo de la actividad denominada Abuztua Donostian. Un total de 183 actividades de pequeño formato tuvieron lugar en la ciudad durante el mes de agosto y concentradas, sobre todo en los fines de semana de jueves a domingo; actividades dirigidas a un amplio espectro de público y con un denominador común: actividades al aire público en su inmensa mayoría y siguiendo estrictamente las medidas de seguridad y de aforos.

En general, las actividades programadas tuvieron una buena respuesta del público aunque algunas de ellas quedaron un poco lejos de las expectativas que nos habíamos fijado. Los conciertos, los espectáculos de teatro al aire libre y las actividades infantiles gozaron de una buena respuesta por parte del público. Sin embargo, el cine que programamos en los diferentes barrios de la ciudad no concitó la afluencia de público esperada y deseada.



Bigarren urtez segidan, Su Festen Nazioarteko Lehiaketa ezin izan zen egin.

Abuztuaren 31 oroitzeako jarduerak eman zioten buru hilabeteari; azken urteetakoak baino askoz jarduera neurtuagoak, intimoagoak, ikus-entzunezkoen eta hitzaldien bidez gogoratuz zer gertatu zen 1813an, eta kontzerturen bat edo beste ere bai, egun haren oroigarri.

Irailaren batean (emakume taldeen sailkapena), 2an (gizonezkoen taldeen sailkapena), 5ean (lehen jardunaldia) eta 12an (bigarren jardunaldia) jokatu ziren 2021eko Kontxako Banderaren estropadak. Urte horretako edizioa edukiera mugatuta egin zen, ikusleen oso kopuru txikia izanik, kontrolatzeko, eta bederatzi zona ezarri estropadak ikusteko. Zona horiez gainera, eta ohikoa denez, Paseo Berriko tribuna ipini zen. Guztira, estropadak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten pertsonen kopurua 2.760 lagunekoa izan zen, eta sarrerak estropadak jokatu aurretik erosi behar izan ziren, dela Internet bidez, dela Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletara joanda.

Probaren inguruan hartutako segurtasun-neurriak aurreko urtekoen oso antzekoak izan ziren, eta banderen ematea Ciudad de San Sebastián katamaranean egin zen beti bezala, eta badian.

Osasun-egoerak txarrera egin zuelako, Santo Tomas Feria bertan behera geratu zen bigarren urtez segidan.

Urtero bezala, Olenzero eta Mari Domingi Donostiara iritsi ziren abenduaren 24an. Donostiako neskamutikoek biek bat egiteko aukera izan zuten, eta hiriko zenbait auzotan egindako ibilbidean ikustekoa, bai eta gutunak haiei emateko aukera ere Udaletxeko terrazan, eta, eguna amaitzeko, desfileaz gozatu ahal izan zuten hiriaren erdialdeko kaleetan.

Laburbilduz, 2021 ez da izan urte normala, aurrekoa ere izan ez zen bezala, osasun-krisia dela eta: kontrastez beteriko urtea, jarduera batzuetan edukiera betetzeak agerian utzi baitu herritarren "kultur gosea", eta beste batzuetan, berriz, murrizpena eta ziurtasunik eza izan baitira tarteka.

Erakundeak egoera hori baliatu du etengabeko eraldatze eta digitalizazio-prozesua areagotzeko, lehendik ere horretan ari baitzen. Web berri bat burutu nahi da 2022rako, eta lanean ari gara kultura, irakurri ez ezik, entzun (DK Irratia) eta ikusi (Larrotxene Bideo, eta abar) ere egin dadin.

Esan behar dugu dagoeneko 112.832 bazkide dituela Donostia Kulturak (2020an baino 2.766 gehiago), eta horrek Gipuzkoako klubik handiena bihurtzen duela erakunde hau. Horretarako, 5.498.669 bisita izan ditu webean, eta 168.825 jarraitzaile ditu kudeatzen dituen sare sozialetan.

Por segundo año consecutivo, el Concurso Internacional de Fuegos Artificiales no pudo celebrarse.

Terminamos el mes con las actividades conmemorativas del 31 de agosto; unas actividades mucho más sobrias, más intimistas que las de los últimos años, recordando mediante audiovisuales y conferencias lo ocurrido en 1813 y con algún concierto para recordar la fecha.

Los días 1 (clasificatoria femenina), 2 (clasificatoria masculina), 5 (primera jornada) y 12 de septiembre (segunda jornada) tuvieron lugar las regatas correspondiente a la Bandera de La Concha 2021. La edición de este año se celebró con aforo restringido, con asistencia controlada de un número muy pequeño de público y se establecieron 9 zonas para poder seguir las regatas. Además de estas zonas, y como ya viene siendo habitual, se instaló la tribuna del Paseo Nuevo. El número total de personas que pudo asistir a ver las regatas in situ fue de 2.760 y las entradas tuvieron que ser compradas con antelación a la celebración de las mismas bien por internet o físicamente en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia.

Las medidas de seguridad tomadas en torno a la prueba fueron muy similares a las del año anterior y la entrega de las Banderas se realizó como siempre en el catamarán Ciudad de San Sebastián y en la bahía.

La Feria de Santo Tomas fue suspendida por segundo año consecutivo, debido al empeoramiento de la situación sanitaria.

Como cada año, Olentzero y Mari Domingi llegaron a Donostia / San Sebastián el día 24 de diciembre. Las niñas y niños donostiarras tuvieron la oportunidad de encontrarse con ambos y poder verles en su periplo por algunos barrios de la ciudad así como de entregarles sus cartas en la terraza del ayuntamiento y finalizar la jornada disfrutando de la cabalgata por las calles del centro de la ciudad.

En resumen, 2021 ha sido un año fuera de lo normal, como el anterior, debido a la crisis sanitaria; un año lleno de contrastes con "lentos" en algunas actividades que evidencian las "ganas de cultura" de la ciudadanía, frente a temporadas de restricciones e incertidumbre.

La entidad ha aprovechado esta situación para reforzar el proceso de transformación y digitalización constante en el que está inmersa. Mientras se trabaja en una nueva web para 2022, hacemos que la cultura no sólo se lea, sino que se escuche (DK Irratia) y se vea (Larrotxene Bideo, etc.).

Señalar que ya son 112.832 las y los socios de Donostia Kultura (2.766 más que en 2020), lo que convierte a esta entidad en el mayor club de Gipuzkoa. Cuenta para ello con 5.498.669 páginas vistas en su web, y con 168.825 seguidores en las diferentes redes sociales que gestiona.



Berdintasunari dagokionez, 2021ean gogor lan egin dugu arlo honetan bai barrura begira eta baita kanpora begira ere. Barrura begira Donostia Kulturaren Berdintasun Plan berria diseinatzeko aritu gara eta lortu dugu. Dagoeneko prest daukagu hurrengo urteetan oinarri izango dugun Berdintasun Plana. Kanpora begira berriz, programazioan jarraian aipatzen ditugun jardueretan islatzen da Donostia Kulturak berdintasunarekiko duen konprometua: urtero legez, Emakumeen astea eraman zen aurrera martxoan zehar Altzan eta Intxaurrondon. San Telmo Museoak Baginen bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak, erakusketak eraman zuen aurrera, zeina azaroaren hondarrean inauguratu baitzen, eta oso harrera ona izan baitzuen. Emakume artistek egindako lanak bildu ziren gehienbat, San Telmo Museoako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bildumetakoak. Gogoeta eragiteko helburuarekin ea emakume horietako asko zergatik zaizkigun ezezagunak gaur egun. Erakusketarekin lotuta urtean zehar, emakume artisten lanak erosi ziren batez ere. Victoria Eugenia Antzokian eta Emakumearen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Donostia Kulturak Gure ahotsak kontzertua antolatu zuen hirugarren urtez, emakumezko musikari gazteen lana nabarmentzeko asmoz.

Euskara Planaren ekintzekin jarraitu genuen 2021ean. Bereziki aipatu daiteke Euskara Plana aurrera eramateko daukagun egituraren hausnarketa egin genuela eta egitura berri eta indartua lortu dugula.

Ekonomia eta finantzak sailean eta aurretik aipatutako etengabeko eraldatzearen helburua jarraituz, zero papelera iristeko bideari ekin zitzaion 2020ean. Kontabilitate atalean pandemiak eragindako konfinamenduak bide hori indartu egin zuen eta 2021an digitalki lan egiteko modua finkatu egin zen. Kontratazio atalean berriz Urgull programaren garapenean aritu ginen 2021ean kontratuen prozedura erabat digitala izate aldera eta prozedura errazteko helburuarekin. Digitalizaziora bide honek urte amaieran beste mugarri bat izan zuen ekonomia eta finantzak sailaren bulegoen erabateko eraldaketarekin.

Alegia, Donostia Kultura indarturik sartu da 2022.urtean, bere ahal osoan, gure ingurunearen kultur lokomotora bihurturik.

I.II. Erakundearen egoera

Emaizta-kontua

2021eko Emaizta-kontuak 12.592.549,62 euroko emaitza negatiboa egotzi du; 2020ko emaitza negatiboarekiko (12.374.414,12 euro) %1,76ko igoera suposatzen duen delarik.

En cuanto a la igualdad, en 2021 hemos trabajado duro en este campo tanto de cara al interior como al exterior. Internamente hemos estado diseñando el nuevo Plan de Igualdad de Donostia Kultura y lo hemos conseguido. Ya tenemos preparado el Plan de Igualdad en el que nos basaremos en los próximos años. De cara al exterior, el compromiso de Donostia Kultura con la igualdad se refleja entre otras en las siguientes actividades que se programaron en 2021: durante el mes de marzo se llevó a cabo la Semana de las Mujeres en Altza e Intxaurrondo. El Museo San Telmo programó la exposición Baginen bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak, que se inauguró en noviembre y cuya acogida fue muy buena. En esta exposición se reunieron obras realizadas en su mayoría por artistas mujeres pertenecientes a las colecciones del Museo San Telmo y la Diputación Foral de Gipuzkoa. El objetivo fue promover una reflexión acerca de las razones por las que muchas de ellas nos resultan desconocidas. Vinculado con la exposición se adquirieron sobre todo obras de arte realizadas por mujeres. En el Teatro Victoria Eugenia y coincidiendo con el Día Internacional de la Mujer, Donostia Kultura organizó por tercer año consecutivo el concierto Gure ahotsak, con la intención de poner en valor el trabajo de las músicas jóvenes.

Se ha continuado con las acciones del Plan de Euskera. En 2021 se puede mencionar especialmente que hemos reflexionado sobre la estructura que tenemos para llevar a cabo el Plan de Euskera y hemos conseguido una estructura renovada y reforzada.

En el departamento de Economía y Finanzas, y siguiendo el objetivo de la transformación continua, en 2020 se inició el camino hacia el cero papel. En la sección de contabilidad el confinamiento consecuencia de la pandemia reforzó ese camino y ya en 2021 se consolidó la forma de trabajar digitalmente. En la sección de contratación durante el 2021 se trabajó en el desarrollo del programa Urgull con el objetivo de que el procedimiento de los contratos fuera totalmente digital y se facilitara el mismo. Este camino a la digitalización marcó otro hito a finales de año con la transformación total de las oficinas del departamento de Economía y Finanzas.

En definitiva, Donostia Kultura entra en 2022 fortalecida, al 100% de su capacidad como locomotora cultural del entorno.

I.II. Situación de la Entidad

Cuenta de Resultados

La Cuenta de Resultados de 2021 arrojó un resultado negativo de 12.592.549,62 euros, lo que supone un incremento del 1,76% con respecto a las pérdidas del ejercicio 2020 (12.374.414,12 euros).



Personal gastuak %4,26ko igoera izan zuen 2020arekin alderatuta. Alde batetik soldata igoeren ondorioz eta bestetik produktibitate paga ordaindu izanaren ondorioz.

Ustiapenerako beste zenbait gastuk 2020arekin alderatuta 104.696,14 euro egin zuten behera, %1,69 alegia. Negozioaren garapenean aipatu bezala 2021ean Covid-19 pandemiaren ondorioz, ez zen San Sebastian jairik ospatu, ezta ifñauteri eta kaldererorik ere. Auzoetako jaiei ere egoerak nabarmen eragin zien. Horren ondorioz, Donostia Kulturak emandako dirulaguntzetan beherakada nabarmena izan zen. Ikastaroetan ere gastua baxuagoa izan zen 2020-2021 kanpaina pandemia egoerara egokitzearen ondorioz. Beste jarduera gastu batzuek berriz gora egin zuten: emanaldi gastuak, erakusketa gastuak, hitzaldi zein dinamizazio gastuak batzuk aipatze arren.

Sarrerei dagokionez, negozio zifraren zenbateko garbiak eta ustiapenerako beste zenbait sarrerek 2020arekiko %2,41eko igoera izan zuten, 155.588,16 euro alegia. Sarreren igoera hori hein handi batean soldaten igoeren ondoriozko enpresen arteko fakturazioari dagokio.

Egoera balantzea

Erakundearen balantzean gertatutako aldaketa nagusiak honako hauek dira:

Aktiboa

- %1,93ko jeitsiera guztizko ibilgetuan amortizazioaren ondoriozko narriadurarengatik.

Pasiboa

- Epe laburreko aldizkapenetan %255eko igoera 2021-2022 ikastaro kanpaina pandemia aurreko egiturara itzuli izanaren ondorioz.

II. Sozietatearen Egoera Orokorra: hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako bilakaera.

Sozietatearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenei dagokienez, 2022ko ekitaldiari begira, COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako egoerak ziurgabetasuna eragiten jarraitzen badu ere, 2021 ekitaldiarekiko sarrera eta gastuetan igoera izango dela aurreikusi dugu. Hala ere, oraindik ez dugu aurreikusten pandemia aurreko zenbakietara iritsiko garenik.

El gasto de personal se incrementó en un 4,26 % con respecto al 2020 como consecuencia del incremento de retribuciones y de la paga de productividad.

Los gastos de explotación disminuyeron en 104.696,14 euros, un 1,69% con respecto al 2020. Tal como se ha mencionado en el desarrollo del negocio, en 2021 no se celebraron ni las fiestas de San Sebastián, ni los carnavales ni caldereros, debido a la pandemia de Covid-19. Las fiestas de los barrios también se vieron afectadas por la situación. Como consecuencia de ello, se produjo un notable descenso en las subvenciones concedidas por Donostia Kultura. El gasto en los cursos también fue más bajo debido a la adaptación de la campaña 2020-2021 a la situación de pandemia. Otros gastos ligados a la actividad que tuvieron un incremento fueron los gastos de exposiciones, conferencias y dinamización.

En cuanto a los ingresos, el importe neto de la cifra de negocios y otros ingresos de explotación experimentaron un incremento del 2,41% respecto a 2020, 155.588,16 euros. Este aumento de ingresos corresponde en gran parte a la facturación entre empresas por aumentos salariales.

Balance de situación

Las principales variaciones habidas en el balance de la entidad son las siguientes:

Activo

- Disminución del 1,93% del inmovilizado total por el deterioro de la amortización

Pasivo

- Incremento del 255% en las periodificaciones a corto plazo como consecuencia de la vuelta de la campaña 2021-2022 al formato de ediciones anteriores.

II. Coyuntura General de la Sociedad: objetivos para el próximo ejercicio y evolución previsible.

En cuanto a la previsión de las variables económicas de la Entidad para el ejercicio 2022 aunque la situación derivada de la pandemia por la COVID-19 sigue generando incertidumbre se ha previsto un incremento de los ingresos y de los gastos con respecto al 2021. De todas formas no se prevé llegar a las cifras prepandemia.



III. Kudeaketa-txostena aurkeztu baino lehen gertatutako jazoerak.

2022ko otsailaren 24an, Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta agerian utzi du eskala handiko gatazka beliko bat. Munduko ekonomiari dagokionez zaila da gatazka horren ondorioak aurreikustea. Erakunde kasu zehatzean, haren jardura dela ez da aurreikusten eragin garrantzitsurik izango duenik.

IV. I+G jarduerak.

2021 ekitaldian erakundeak ez ditu ikerketa eta garapenari buruzko jarduerak egin.

V. Berezko akzioei buruzko informazioa.

Erakundeak ez ditu berezko akzioak eskuratu.

VI. Sozietateak aurre egin beharreko arrisku eta kezkei buruzko informazioa.

Ez dugu erakundeak aurre egin beharreko arrisku edo kezkarik ezagutzen.

Donostia, 2022ko martxoaren 30ean

III. Hechos posteriores hasta la formulación del Informe de gestión.

El 24 de febrero de 2022, con la invasión rusa de Ucrania se ha puesto de manifiesto un conflicto bélico a gran escala cuyas consecuencias en lo que respecta a la economía mundial resultan difíciles de prever. En el caso concreto de la Entidad, dada la actividad desarrollada no se prevé un impacto relevante sobre la misma.

IV. Actividades de I+D.

En el ejercicio 2021 la entidad no ha realizado actividades en materia de investigación y desarrollo.

V. Información Sobre Acciones Propias.

La entidad no ha adquirido acciones propias.

VI. Información sobre riesgos e incertidumbres a los que se enfrenta la Sociedad.

No se conocen riesgos o incertidumbres relevantes a los que se enfrente la entidad.

San Sebastián, 30 de marzo de 2022

Eneko Goia Laso

Lehendakaria/ Presidente